

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4571

EBAZPENA, 2023ko irailaren 22koa, Migrazio eta Asiloko zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baitira Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko ekainaren 7ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak. Agindu horren bidez, oinarriak onartzen dira laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten, eta 2023. urterako deialdia egiten da. Dirulaguntzen lehenengo lerroa: immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak.

AURREKARIAK

1.– Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko ekainaren 7ko Aginduaren bidez (2023-06-19ko EHAA, 115. zk.), oinarriak onartzen dira laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten, eta 2023. urterako deialdia egiten da. Zehazki, agindu horren II. kapituluak dirulaguntzen lehenengo lerroa arautzen du: immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak.

Agindu horren 15 artikulua ezartzen du 480.000,00 eurokoa dela aurrekontu-kreditua, EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko dirulaguntzak emateko dena.

2.– 2023ko ekainaren 7ko Aginduaren 14. eta 16. artikuluetan zehaztuta dago finantzaketa publikoa jasotzeko zer betekizun eta baldintza bete behar dituzten eskatzaileek, bai eta zein diren esleipen-irizpide espezifikoak ere.

3.– Lehenengo eranskinean aipatzen diren EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek laguntzak eskatu dizkiote Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari, immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu ahal izateko.

4.– 2023ko ekainaren 7ko Aginduaren 4. artikuluekin bat etorriz, Balorazio Batzordeak, 2023ko uztailaren 20an egindako bileran, ebazpen-proposamen bat prestatu zuen, laguntza-lerro horretan aurkeztutako eskaeren inguruan, aurreko araudia kontuan harturik.

Horrenbestez, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren Balorazio Batzordeak prestatutako txosten teknikoa ikusita, eta lehenago aipatutako 4. artikulua betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bigarren eranskinean aipatzen diren EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei eranskin horretan bertan zehazten diren diru-zenbatekoak ematea, immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu ahal izateko laguntza gisa.

Bigarrena.– Laguntzen ordainketa, bai jarduerak garatzeko zein langileak kontratatzeko ere, zatika egingo da: % 70 ordainduko da 10.a) artikuluan ezarritako epea igarotakoan, berariaz uko egin ez bazaio eta diruz lagundutako ekintzen gutxienez % 70i dagokion gastuaren betearazpena 2023ko abenduaren 31 baino lehen justifikatu eta egiaztatu ondoren.

Gainerako % 30a 2024ko ekitaldian ordainduko da, justifikatzeke geratzen diren gainerako ekintzak 2024ko martxoaren 31 baino lehen justifikatu ondoren.

Urte anitzeko laguntza denez, emandako laguntzaren % 100 ez da inola ere ordainduko 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Hirugarrena.– Erakunde onuradunak berariaz adierazi behar du Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren babes duela, diruz lagundutako jardueren zabalitzea, hedatzea, edo, hala badagokio, argitaratzea dakarten diruz lagundutako jarduera guztietan.

Laugarrena.– Gastuak justifikatzeko, jatorrizko dokumentu egiaztatzaileak aurkeztu behar dira, edo salbuespen gisa, dokumentu horien kopia konpultsatuen bidez egin daiteke, edo erakunde publikoan fede publikoa duen pertsonak emandako ziurtagiri baten bidez. Azken kasu horretan, ziurtagiriak adieraziko ditu kontratatutako immigrazio-teknikariaren zenbakia eta lanbide-kategoria, eta harremanaren ondoriozko kostu ekonomikoa, bai eta garatutako ekintzen kostua ere, 2023. urteari dagokionez betiere.

Bosgarrena.– Dirulaguntza justifikatzeko bidalitako dokumentuak aztertu ondoren gainfinantza-ketatik edo eskatutako faktura guztiak ez aurkezteagatik dirulaguntzaren bigarren ordainketaren kopurua murriztu behar bada edo jasotako diru guztia edo zati bat itzuli behar bazaio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Migrazio eta Asiloko zuzendariak banakako likidazio-ebazpen bat eman beharko du, eta, hala badagokio, bi hilabeteko epea emango du, ebazpena jasotzen den egunetik hasita, dagokion diru-itzulketa egiteko.

Seigarrena.– Dirulaguntzak eta erakunde onuradunak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiok Gizarte Politiketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 22a.

Migrazio eta Asiloko zuzendaria,
XABIER LEGARRETA GABILONDO.

I. ERANSKINA

IZAPIDETZEKO ONARTUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Proiektua
001-1053007	Durangoko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
002-1053007	Zarauzko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
003-1053007	Eibarko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
004-1053007	Getxoko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
005-1053007	Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
006-1053007	Tolosaldea Garatzen	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
007-1053007	Pasaiaiko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
008-1053007	Gasteizko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
009-1053007	Bilboko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
010-1053007	Barakaldoko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
011-1053007	Ermuako Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak
012-1053007	Donostiako Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak

2023ko urriaren 5a, osteguna

II. ERANSKINA

LAGUNTZA ONARTU ZAIEN ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Proposatutako dirulaguntza (eurotan)
001-1053007	Durangoko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
002-1053007	Zarauzko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
003-1053007	Eibarko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
004-1053007	Getxoko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
005-1053007	Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
006-1053007	Tolosaldea Garatzen	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
007-1053007	Pasaiako Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
008-1053007	Gasteizko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	90.000,00
009-1053007	Bilboko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	90.000,00
010-1053007	Barakaldoko Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
011-1053007	Ermuako Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00
012-1053007	Donostiako Udala	Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak	30.000,00